

KANALAK

KOMUNIKAZIO KANALAK:

- **Sare-sozialak:** Gure produktuaren instagram kontu bat irekiko dugu gure produktua publizitzeko. Gazteek denbora asko ematen dute sare sozialean eta eurei iristeko modu egokiena dela iruditzen zaigu.
- **Irratia:** Gure arropa Euskadi Irratian publizitatuko genuke, batez ere, pertsona helduagoei, gure produktuaren berri eduki dezaten.
- **Telebista:** Telebistan ere iragarki bat egingo dugu EITBn. Jendeari iristeko modu egokiena iruditzen zaigulako. Adin tarte guztietako pertsonak ikusten baitute.
- **Web orria:** Web orrian gure produktuak erosteko aukera izango da. Dendetara joan ezin duenak gure produktuak erosteko aukera izan dezan.

BANAKETA KANALAK:

- **Furgoneta:** Furgoneta bat alokatuko dugu web orrialdetik erositako produktuak banatzeko

SALMENTA KANALAK:

- **Web orrialdea:** Gure produktuak web orrialdetik salduko ditugu. Dendetara gerturatu ezin direnak gure produktuak eskuragai izan ditzaten.
- **Inguruko dendetan:** Mundu guztiak ez dauzka web orrialdea erabiltzeko baliabideak eta herriko komertzioei babes ematea oso garrantzitsua iruditzen zaigu; azken finean, gure ere komertzio txiki bat gara eta elkarrean artean laguntzea ezinbestekoa gure biziraupenerako. Hori dela eta, denda txikietan gure produktuak saltzea erabaki dugu

EBALUAZIOA ETA PERTZEPZIOA

Erosleek gure produktuaren kalitatea eta prezioa bat datozela iruditzen bazaie, erosi egingo dute.

EROSKETA:

Ebaluazioa positiboa bada, gure web orritik edo inguruko dendetatik erosiko dute.

ENTREGA:

Produktua jasotzeko, inguruko dendetan erosteko aukera izango due; horrez gain, furgoneta baten bitartez banatzen arituko garenez, erosketa etxean bertan jasotzeko aukera izango dute.

SALMENTA ONDORENGOA:

Erosketa datatik 30 eguneko epea izango da produktua itzultzeko, betiere produktu hau erabili gabe eta erositako momentuan bezala aurkitzen bada.